

# **EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA 2017/2018**

## **Lehen Hezkuntzako 4.a**

Amaierako txostena  
2018ko uztaila

EBALUAZIO ETA KALITATE ATALA

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	3
1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala eta egokitzapenak .....	4
1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak .....	6
2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz .....	7
2.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak .....	7
2.2. Gaitasun mailak: esanahia .....	10
2.3. Galderak: informazioa .....	11
2.4. Emaidza orokorrak .....	13
2.5. Puntuazioen banaketa .....	16
3. Hizkuntza gaitasuna euskaraz .....	17
3.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak .....	17
3.2. Gaitasun mailak: esanahia .....	20
3.3. Galderak: informazioa .....	21
3.4. Emaidza orokorrak .....	23
3.5. Puntuazioen banaketa .....	26
4. Matematika gaitasuna .....	27
4.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak .....	27
4.2. Gaitasun mailak: esanahia .....	29
4.3. Galderak: informazioa.....	30
4.4. Emaidza orokorrak .....	32
4.5. Puntuazioen banaketa .....	35
5. Hizkuntza gaitasuna ingelesez .....	36
5.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak .....	36
5.2. Gaitasun mailak: esanahia .....	38
5.3. Galderak: informazioa.....	39
5.4. Emaidza orokorrak .....	41
5.5. Puntuazioen banaketa .....	44
6. Aldagai sozioekonomiko eta kulturala .....	45
6.1. ISEKa nola lortu eta haren erabilgarritasuna.....	45
6.2. ISEKaren banaketa .....	48
6.3. Erregresio-zuzenak .....	51

## 1. Sarrera

Hezkuntzako zuzendari nagusiak ekainaren 22an emandako 261/2017 Ebazpenean xedatuaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ebaluazio diagnostikoa ezartzen du Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako ikasle guztientzat. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarrizko gaitasunen gainekoa.
- Informatiboa, ikasleentzat eta haien familientzat.
- Prestakuntzako, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2017-2018ko ebaluazio diagnostiko zentsalean landu dira irakas-hizkuntzetako hizkuntza gaitasunak, matematika gaitasuna eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna.

Errendimendu probak Ebaluazio eta Kalitate Atalak prestatu ditu, irakasleek taldeka egindako lanetik abiatuak. Beraz, kanpokoak izan dira ikastetxeendako, eta ikastetxe guztietan egun beretan aplikatu dira eta aurrez finkaturiko irizpideen arabera zuzendu dira.

Ekainaren hasieran ikastetxeek ikasleen emaitzak jaso zituzten, ikasle bakoitzaren txosten bat egiteko helburuarekin. Txosten horren berri eman zitzaizen familiei ikasturtea bukatzean.

Egun beretan, ikastetxeek Educa aplikazioaren bitartez estatistikoen txosten osoa eskuratu zuten. Hartan honako hauek agertzen dira: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, gaitasun mailaren araberako ikasleen banaketa, galderetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, talde bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEKaren (aldagai sozioekonomikoa) arteko erregresioaren informazioa. Ebaluaturiko gaitasunaren araberako informazioa tauletan eta grafikoetan eman zen.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzi handia du gaitasun mailen esanahiak, galderak gaitasun maileri atxikitzeak (mailaketa) eta ebaluaturiko prozesua galdera bakoitzarekin identifikatzeak. Ikasleen puntuazioen banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu eta banaketa normalarekiko konparazioa egiten da.

Eta ataletako batek ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa aztertzen du. Gaitasun bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

## 1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala eta egokitzapenak

2017-2018 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako matrikula, osotara, 7079 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzendu zaie ebaluazio diagnostiko zentsala.

2017-2018 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilan matrikulatutako ikasle guztiek ebaluazio diagnostikoa egin beharko lukete. Egokitzapen motaren bat behar duten lau kasu hartu dira aintzat:

- 1. Sarbideko eta antolakuntzako egokitzapenetan** honako hauek sar daitezke: proben formatua eta aurkezpena, proben denbora eta probak egiteko tokia, ingurua (argiteria, akustika...), probak egiteko jarraibideak, erantzunaren forma (baliabide teknologiko egokituak eta irisgarriak...), etab. Kasu hauetan, emaitzak Educa aplikazioan sartuko dira modu normalizatuan.
- 2. Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako ikasleak, LHko 3.eko Matematika eta/edo Hizkuntza arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekerperazio planak (EP3) egiten ari direnak.** Ikasle hauek probak normaltasunez egiten dituzte eta emaitzak modu normalizatuan sartuko dira Educa aplikazioan.
- 3. Curriculumeko atzerapena duten Lehen Hezkuntzako 4.eko ikasleak, LHko 1.eko edo 2.eko Matematika eta Hizkuntza (Gaztelania edo Euskara, D ereduan) arloei dagozkien ikaskuntzak gainditzeko errekerperazio planak egiten ari direnak.** Ikasle hauek beren gaitasunari edo curriculum-mailari egokitutako ebaluazio probak egin beharko dituzte.  
Kasuistika hau duten ikasleek lehen fase batean proba bera egin dezakete, gainerako ikasleen baldintza berberetan, eta saioa bukatu ondoren bigarren fase batean proba egiten segitu dezakete beharrezkoak dituzten egokitzapenekin. Ikastetxea arduratuko da egokitzapen horiek modu pertsonalizatuan egiteaz.  
Ikaslearen txostena eskuz edo Educa aplikazioa baliatuta egin ahal izanen da. Bigarren aukera hori erabili nahi izanez gero, ikaslea "Salbuetsita" gisa markatu beharko da Educa aplikazioan, haren emaitzak ez daitezten kontuan hartu ikastetxearen txostenean.
- 4. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, neurri egokienak ezarriko dira probak beren beharretara egokitu daitezten.** Ikasleren batek **curriculum egokitzapen esanguratsu** bat ezarrita badu, egokitzapen horren arabera eta dagokion mailan ebaluatuko da. Egin beharreko egokitzapenak orientatzaileak eginitako txosten psikopedagogikoan oinarrituko dira eta ikastetxeak ikasle horiek ebaluatzeko

prozesuetan erabili dituen egokitzapenen arabera egingen dira. Kasu hauetan egokitzen ahalko da probak egiteko epea eta emaitzak ez dira Educa aplikazioan sartuko.

Ikastetxeak (zuzendariak, orientatzaileak, tutoreak, irakasle espezialistak...) aurreikusi eta jarriko ditu behar diren egokitzapenak eta laguntzak, baita egokitutako probak egingen ere. Ikastetxeetako **zuzendaritza taldeek** beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanen dituzte eta erabili beharreko gune eta denborak egoki **antolatuko** dituzte.

luz bezala eta Ikastetxeek errazago aplika ditzaten proba diagnostiko hauek, Ebaluazio eta Kalitate Atala –Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin koordinaturik– harremanetan jarri da ikastetxeetako orientatzaileekin, baldin eta ikastetxe horietan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak badaude, Educa programan mugimenduko, entzumenerako edo ikusmeneko desgaitasuna duten ikasle gisa ageri direnak. Helburua izan da probetako egokitzapenak pertsonalizatzea eta, horrela, kanpoko ebaluazio inklusiboagoa egitea. Hurrengo taulan probetarako egin diren egokitzapenak ageri dira, hezkuntza premiaren mota aintzat hartuta.

Hezkuntza beharra	Egokitzapen mota	Ikastetxe kopurua
<b>Entzumenerako desgaitasuna</b>	- FMren erabilera	1 ikastetxe
<b>Ikusmeneko desgaitasuna</b>	- Proba burutzeko toki egokia hautatzea - NHBBZ-ko aditu bat ebaluazioa aplikatzen den lehenengo egunean egotea - Proba guztiak Braille-ra egokitzea	1 ikastetxe

Ondoko tauletan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak.

## 1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

### a) Orokorrak

	Lehen Hezkuntza: 4. ikasmaila	
	Kopurua	Portzentajea
Matrikula, osotara	7079	%100,00
Emaitzak Educan dituzten ikasleak	6850	%96,77
Emaitzak Educan ez dituzten ikasleak	229	%3,23

### B) Hizkuntza ereduen arabera

	A/G eredia		B/D eredia	
	Kopurua	Portzentajea	Kopurua	Portzentajea
Matrikula, osotara	5129	%100,00	1950	%100,00
Proba egin duten ikasleak	4934	%96,20	1916	%98,26

### c) Gaitasunaren arabera

	Proba egin dute		
	Kopurua	Portzentajea (matrikula osoaren gainean)	Portzentajea (proba egin duten ikasleen gainean)
Hizk. gait. gaztelaniaz	6834	%96,54	%99,77
Hizk. gait. euskaraz	1908	%26,95	%27,85
Matematika gait.	6816	%96,28	%99,50
Gait. ingelesez	6818	%96,31	%99,53

Txosten honetan agertutako emaitza orokorretan (estatistikoak) proba egin duten ikasleak –zeinen emaitzak Educan erregistratu diren- eta salbuetsita bezala agertzen ez diren edo epez kanpo aurkeztu diren ikasleak kontuan hartu dira.

## 2. Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz

### 2.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi zati izan ditu: irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Irakurriaren ulermenean, bi estimulu edo testu izan dira, “*Sémola, semolarum*” eta “*Antes del viaje*” izenburukoak. “*Sémola, semolarum*” testuari buruz 15 galdera izan dira eta “*Antes del viaje*” izeneko bigarren testuari buruz 8 galdera; guztira, 23 galdera. Horien artean, 20 galderak puntu 1eko balioa izan dute eta 3 galderak 2 puntukoa, kasu honetan puntuazio partzialak egon zitezkeelarik; gehieneko puntuazioa 26koa izan da.

Galderen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (ikasleen %92,73ak zuzen erantzundakoak) eta beste batzuk oso zailak (ikasleen %26,57ak baino ez dituztenak zuzen erantzun).

23 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin loturik daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako galderen zenbait ezaugarri: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehieneko puntuazioa eta ebaluaturiko irakurketa prozesua*. Galderen ordena taulan eta probaren koadernotxoan bera da.

**Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz**  
**(irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia)**

Galdera zenbakia	Mota	Gehieneko puntuazioa	Erantzun zuzenen ehunekoak	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1	%74,15	Ulermen globala eta interpretazioa
2	Itxia	1	%86,91	Informazioa aurkitu eta lortzea
3	Itxia	1	%82,66	Ulermen globala eta interpretazioa
4	Itxia	1	%87,81	Informazioa aurkitu eta lortzea
5	Itxia	1	%92,73	Informazioa aurkitu eta lortzea
6	Irekia	2	%64,29	Ulermen globala eta interpretazioa
7	Itxia	1	%87,46	Ulermen globala eta interpretazioa
8	Itxia	1	%90,52	Informazioa aurkitu eta lortzea
9	Irekia	2	%60,06	Informazioa aurkitu eta lortzea
10	Itxia	1	%77,20	Informazioa aurkitu eta lortzea
11	Itxia	1	%84,28	Informazioa aurkitu eta lortzea
12	Irekia	2	%26,57	Ulermen globala eta interpretazioa

13	Itxia	1	%92,05	Ulermen globala eta interpretazioa
14	Itxia	1	%84,85	Hausnarketa eta balorazioa
15	Itxia	1	%53,14	Ulermen globala eta interpretazioa
16	Itxia	1	%82,82	Ulermen globala eta interpretazioa
17	Itxia	1	%80,95	Ulermen globala eta interpretazioa
18	Itxia	1	%92,67	Informazioa aurkitu eta lortzea
19	Itxia	1	%77,96	Ulermen globala eta interpretazioa
20	Itxia	1	%61,82	Ulermen globala eta interpretazioa
21	Itxia	1	%73,56	Hausnarketa eta balorazioa
22	Itxia	1	%52,36	Hausnarketa eta balorazioa
23	Itxia	1	%73,21	Ulermen globala eta interpretazioa
24*	Irekia	9	%61,30	<i>Aurkezpena eta ortografia, testuaren koherentzia, zuzentasun gramatikala eta aberastasun lexikoa</i>

\* 24. galdera ekoizpen idatzikoa (idazlana) da

Ekoizpen idatziaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, pertsona desberdinak tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten inguruan. Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*; denek munta bera izan dute puntuazio osoan (gehienez ere 3 puntu zati bakoitzak). Ondorengo tauletan, aplikatutako zuzenketa irizpideak zehazten dira:

Aurkezpena eta ortografia			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailerako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko daude.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du. 2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Txukun idatzita egotea</i> (ez dago zirrimarrarik...)</li> <li>▪ <i>Letra argia, erregularra eta irakurterraza</i></li> <li>▪ Ongi zehazturiko <i>marjinak</i></li> <li>▪ <i>Ortografia</i>: bost akats gehienez (huts egindako 5 tildeko akats 1 kontatzen da), testu laburrak direnean (10-15 lerro). Zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du. 2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats oso gutxi egin du.



Istorioaren koherentzia			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailerako. Koherentziarik eta egiturarik gabeko istorioa kontatu du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Egitura</u> argia: aurkezpena, korapiloa eta amaiera ditu</li> <li>▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: gutxienez ere, hiru paragrafo ditu.</li> <li>▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpausa batzuetatik besteetara jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; istorioa erraz segitzen da.</li> <li>▪ <u>Perpauzak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>▪ <u>Esaldien arteko loturak</u>: perpaus batzuk besteekin ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>▪ <u>Pertsonaien ezaugarritzea</u>: pertsonaiak eta haien ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du.</p> <p>2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu.</p> <p>Horretaz gain, idazkiak ezaugarri hauek ditu: sormena, argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideen erabilera (orduan; geroago; hala ere, etab.); ez da behar ez den errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa); gainera, ez dago jauzirik edo hutsunerik eta bukaera ez da arrapaladakoa.</p>

Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. ikasmailerako. Testua ez da egituratu perpaus argiro zehaztu eta bereizietan. Ez du kode idatzia ahozko kodetik bereizi: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats asko egin ditu.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia ziklorako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia du, honako eskakizun hauek betetzen dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <u>Esaldien sintaxia</u>: sintaxi aldetik ongi eraturiko perpausekin egituratutako idazkia.</li> <li>▪ <u>Aditz-denborak</u>: zuzen erabili ditu aditz-denborak.</li> <li>▪ <u>Komuntadurak</u>: aditz komuntadura (subjektua-predikatua) errespetatu du.</li> <li>▪ <u>Mendeko perpauzak</u>: ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>▪ <u>Hizkuntza mota</u>: argi eta garbi bazterrean utzi du lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>▪ <u>Adjektiboak eta adberbioak</u>: pertsonai eta ekintzei buruzko informazio interesgarria ematen duten adjektiboak eta adberbioak erabili ditu.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.eko curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera maila bikaina du.</p> <p>2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu.</p> <p>Horretaz gain, idazkian ez da akats gramatikalik, hiztegia aberatsa da eta sintaxia menderatzen dela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testuak oso ongi idatzita daude, kontuan izanik hau Lehen Hezkuntzako 4. ikasmaila dela.</p>

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio globala lortzeko, irakurriaren ulermeneko eta ekoizpen idatziko puntuazio osoak (gehieneko puntuazioa 35 puntukoa da) batu dira; irakurketaren puntuazioak %74,286eko pisua du (26 puntu 35tik) eta idazketak %25,714eko pisua (9 puntu 35tik).

## 2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3.+ MAILA
<p>Maila honetako ikaslea gai da narrazio edo azalpen testu bateko informazio erabat literal idatzia ulertzeko. Horretaz gainera, ulermen orokorrik eskatzen ez duten interpretazio-ataza oso errazak zuzen erantzuten ditu.</p> <p>Hala ere, zailtasunak ditu interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.</p> <p><i>Oro har, bere ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez du zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten ditu.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die 1. mailako galderei, hots, narrazio edo azalpen testuetako hitzez hitzeko informazioa eskatzen duten galderei. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere erantzuten ditu, galderak ez direnean horren literalak eta testuaren ulermen maila handiagoa eskatzen dutenean. Interpretazioko eta hausnarketako ataza errazak ebatzen hasi da.</p> <p>Hori hala izanik ere, zailtasunak ditu testuak globalki ulertzeko, nolabaiteko sakontasunez interpretatzeko eta baloratzeko. Ez da inferentzia konplexuagoak egiteko gai.</p> <p><i>Bere ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</i></p> <p><i>Testuaren barne-kohesioan akatsak izan ohi dira.</i></p> <p><i>Perpausen egitura oso oinarrizkoa da.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die 1. mailako bilatzearekin loturiko galderak (informazio hori literalak izan edo ez). Horretaz gainera, testua orokorki ulertzen du. Interpretazioaren eta edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila onargarria du. Horretaz gainera, testu eten batean informazioaren banaketa zein den ulertzen du eta badaki berariazko informazio-mota bat non bilatu. Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p><i>Haren ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude.</i></p> <p><i>Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude.</i></p> <p><i>Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebatzen ditu.</p> <p><i>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen ditu.</i></p> <p><i>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</i></p> <p><i>Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</i></p>

### Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz Puntuazio-tarteak
1. maila	0 – 17
2. maila	18 – 22
3. maila	23 – 30
3.+ maila	31 – 35

### 2.3. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak eta, ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 5. galdera erraza izan zaio ikasleen %92,73ri, eskatutakoa aurkitzeko gai izan baitira. 20. galdera, interpretatzekoa, ez zaie horren erraza izan, %61,82k erantzun baitu zuzen. 12. galderak formaren gaineko interpretazioa eskatzen du eta zaila izan da; %26,57k erantzun du zuzen.

Galdera bakoitzak zailtasun-maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guttizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta galderaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira galdera bat gaitasun maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio-indizea erakusten du:

<b>Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz</b>	
<b>Galderaren zenbakia</b>	<b>Diskriminazio-indizea</b>
1	0,334
2	0,158
3	0,395
4	0,315
5	0,361
6	0,410
7	0,422
8	0,381
9	0,410
10	0,335
11	0,420
12	0,269
13	0,397
14	0,274
15	0,219
16	0,373
17	0,341
18	0,426
19	0,356
20	0,321
21	0,275
22	0,152
23	0,332
24*	0,549

\* 24. galdera ekoizpen idatzikoa (idazlana) da.

## 2.4. Emaitza orokorrak

### Estatistikoen taula (gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna)

<b>Zenbatek egin duen</b>	<b>6834</b>
<b>Zenbat neskak</b>	<b>3294</b>
<b>Zenbat mutilek</b>	<b>3540</b>
<b>Puntuaziorik txikiena</b>	<b>2</b>
<b>Puntuaziorik handiena</b>	<b>35</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>24,63</b>
<b>Desbiderapen tipikoa</b>	<b>5,34</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>25,23</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>24,07</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>10,17</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>20,68</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>56,70</b>
<b>3.+ maila (%)</b>	<b>12,45</b>


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena, 35 puntu.
- Desbiderapen tipikoa 5,34 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %21,68a), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun txikia dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

### Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	
Ikasmaila bakoitzeko ikasleen portzentajea	
1. maila	10,17
2. maila	20,68
3. maila	56,70
3.+ maila	12,45




Alderdi azpimarragarriak:

- Hamar ikasletik ia zazpik (%69,15) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Zortitik batek (%12,45) lortu du bikaintasunaren maila.
- Hamar ikasletik batek (%10,17) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (%20,68) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat soilik burutzen duelarik.

### Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 1,16 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,34).

Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	25,23
Mutilak	24,07



## 2.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa zertxobait asimetrikoa izan da ezker aldetik, eta zertxobait zorrotzago.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,643 da; horra ezker aldetik zergatik den zertxobait asimetrikoa, hau da, aldagarritasun handiagoa dago batez bestekotik beheitiko puntuazioen artean.
- Fisherren kurtosi koefizientea 0,316 da; horra zergatik den zertxobait zorrotzagoa (leptokurtikoa), hau da; batez bestekoaren inguruan, puntuazioen kontzentrazio handiagoa agertzen da.



### 3. Hizkuntza gaitasuna euskaraz

#### 3.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi zati izan ditu: irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia.

Irakurriaren ulermenean, bi estimulu edo testu izan dira, “*Kiratsaren usain ederra*” eta “*Errotain*” izenburukoak. “*Kiratsaren usain ederra*” testua oinarritzat hartuta, 14 galdera egin dira eta “*Errotain*” izeneko bigarren testuaren inguruan, 11 galdera.; guztira, 25 galdera. Horien artean, 16 galderak puntu 1eko balioa izan dute eta 2 galderak 2 puntukoa, kasu hauetan puntuazio partzialak onartzen zirelarik (gehienez ere, puntuazioa 25koa izan da).

Galderen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak suertatu dira (zuzen ikasleen %85,34k erantzundakoak) eta beste batzuk oso zailak (ikasleen %43,91k baino ez dituztenak zuzen erantzun).

25 galderari zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuekin loturik daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako galderen zenbait ezaugarri: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehieneko puntuazioa eta ebaluaturiko irakurketa prozesua*. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernotxoan.

**Hizkuntza gaitasuna euskaraz**  
**(irakurriaren ulermena eta ekoizpen idatzia)**

Galderaren zenbakia	Mota	Gehieneko puntuazioa	Erantzun zuzenen ehunekoak	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1	%74,75	Hausnartu eta baloratzea
2	Itxia	1	%43,27	Informazioa aurkitu eta lortzea
3	Itxia	1	%74,08	Informazioa aurkitu eta lortzea
4	Itxia	1	%82,03	Hausnartu eta baloratzea
5	Itxia	1	%63,01	Informazioa aurkitu eta lortzea
6	Itxia	1	%64,73	Informazioa aurkitu eta lortzea
7	Itxia	1	%45,09	Informazioa aurkitu eta lortzea
8	Irekia	1	%56,42	Hausnartu eta baloratzea
9	Itxia	1	%69,51	Murgiltzea eta interpretatzea
10	Itxia	1	%75,06	Informazioa aurkitu eta lortzea
11	Itxia	1	%57,56	Informazioa aurkitu eta lortzea

12	Itxia	1	%79,01	Murgiltzea eta interpretatzea
13	Itxia	1	%82,96	Murgiltzea eta interpretatzea
14	Itxia	1	%75,27	Murgiltzea eta interpretatzea
15	Itxia	1	%49,25	Hausnartu eta baloratzea
16	Itxia	1	%42,65	Informazioa aurkitu eta lortzea
17	Itxia	1	%48,62	Murgiltzea eta interpretatzea
18	Itxia	1	%35,58	Informazioa aurkitu eta lortzea
19	Itxia	1	%24,99	Informazioa aurkitu eta lortzea
20	Irekia	1	%37,09	Hausnartu eta baloratzea
21	Itxia	1	%58,08	Informazioa aurkitu eta lortzea
22	Itxia	1	%75,01	Murgiltzea eta interpretatzea
23	Itxia	1	%50,29	Informazioa aurkitu eta lortzea
24	Itxia	1	%49,61	Informazioa aurkitu eta lortzea
25	Itxia	1	%49,35	Informazioa aurkitu eta lortzea
26*	Irekia	9	%60,62	<i>Aurkezpena eta ortografia, testuaren koherentzia, zuzentasun gramatikala eta aberastasun lexikoa</i>

\* 26. galdera ekoizpen idatzikoa (idazlana) da

Ekoizpen idatziaren zatian idazlan libre bat idatzi behar izan dute, pertsona desberdinak tartean diren istorio, abentura edo ipuin baten inguruan. Idazlanean funtsezko hiru alderdi hauek baloratu dira: *Aurkezpena eta ortografia, Istorioaren koherentzia eta Zuzentasun gramatikala eta hiztegiaren aberastasuna*; denek munta bera izan dute puntuazio osoan (gehienez ere 3 puntu zati bakoitzak). Ondorengo tauletan, aplikatutako zuzenketa irizpideak zehazten dira:

Aurkezpena eta ortografia			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.  Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.  2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <i>Txukun idatzita dago</i> (ez dago zirrimarrarik...)</li> <li>▪ <i>Letra</i> argia eta irakurterraza.</li> <li>▪ <i>Marjinak</i> ongi zehazturik daude.</li> <li>▪ <i>Ortografia</i>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/tx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean.</li> </ul>	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.  2 puntuazioko lau eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.

Kontakizunaren koherentzia			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
<p>Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p>Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. Edukiari dagokionez, jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako lau bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Egitura</b> argia: gertaerak kronologikoki kontaktu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu).</li> <li>▪ <b>Paragrafo kopurua</b>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan.</li> <li>▪ <b>Bilakaera tematikoa</b>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da.</li> <li>▪ <b>Perpausak</b>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.</li> <li>▪ <b>Joskera</b>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa).</li> <li>▪ <b>Pertsonaien ezaugarritzea</b>: pertsonaiak eta beren ekintzak ongi zehazturik daude (nork zer egiten duen argi gelditzen da).</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i>; <i>geroago</i>; <i>hala ere</i>, etab.; ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.</p>

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna			
0 puntuazioa	1 puntuazioa	2 puntuazioa	3 puntuazioa
<p>Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.</p> <p>Perpausak ez dira zuzenak. Ez ditu bereizi kode idatzia eta ahozkoa: hitz egiten duen bezala idatzi du. Gramatika akats dezente egin ditu.</p>	<p>0 puntuazioaren (puntuazio eskasa) eta 2 puntuazioaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizunetako hiru bete ditu.</p>	<p>Lehen Hezkuntzako 4.erako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>Sintaxia</b>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez.</li> <li>▪ <b>Aditzak</b>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua).</li> <li>▪ <b>Komunztadura</b> akats batzuk egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...).</li> <li>▪ <b>Deklinabidea</b>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har.</li> <li>▪ <b>Erregistroa</b>: argi eta garbi bazterrean utzi ditu lagunarteko eta ahozko hizkuntza.</li> <li>▪ <b>Lexiko</b> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonaiei eta ekintzei buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.</li> </ul>	<p>Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du.</p> <p>2 puntuazioko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.</p>

Hizkuntza gaitasuneko puntuazio globala lortzeko, irakurriaren ulermeneko eta ekoizpen idatziko puntuazio osoak (gehieneko puntuazioa 34 puntukoa da) batu dira; irakurketaren puntuazioak %73,529ko pisua du (25 puntu 34tik) eta idazketak %26,471ko pisua (9 puntu 34tik).

### 3.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3.+ MAILA
<p>Maila honetako ikaslea gai da narrazio edo azalpen testu bateko informazio erabat literal idatzia ulertzeko. Horretaz gainera, ulermen orokorrik eskatzen ez duten interpretazio-ataza oso errazak zuzen erantzuten ditu.</p> <p>Hala ere, zailtasunak dituzten interpretatzea, globalki ulertzea, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.</p> <p><i>Oro har, bere ekoizpen idatzien aurkezpena ez da ona, ez du zinez barne koherentziarik eta komunztadura akatsak egiten ditu.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die 1. mailako galderei, hots, narrazio edo azalpen testuetako hitzez hitzeko informazioa eskatzen duten galderei. Horretaz gainera, informazioa bilatzeko galderak ere erantzuten ditu, galderak ez direnean horren literalak eta testuaren ulermen maila handiagoa eskatzen dutenean. Interpretazioko eta hausnarketako ataza errazak ebatzen hasi da.</p> <p>Hori hala izanik ere, zailtasunak ditu testuak globalki ulertzeko, nolabaiteko sakontasunez interpretatzeko eta baloratzeko. Ez da inferentzia konplexuagoak egiteko gai.</p> <p><i>Bere ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko. Testuaren barne-kohesioan akatsak izan ohi dira. Perpausen egitura oso oinarritzkoa da.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten dituzten informazioa bilatzearekin loturiko galderak (informazio ez). Horretaz gainera, testua orokorki ulertzen du. Interpretazioaren eta edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez maila onargarria du. Horretaz gainera, testu eten batean informazioaren banaketa zein den ulertzen du eta badaki berariazko informazio-mota bat non bilatu. Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p><i>Haren ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude. Perpausak batzuk besteekin ongi kateaturik daude. Maila honetan jadanik ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia. Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarritzko aditz formak.</i></p>	<p>Maila honetako ikasleak, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebatzen ditu.</p> <p><i>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta, orobat, tiletak zuzen erabiltzen ditu. Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira. Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia. Maila honetan nahiko zuzen erabiltzen dira deklinabidea eta oinarritzko aditz formak.</i></p>

### Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna euskaraz Puntuazio-tarteak
1. maila	0 – 13
2. maila	14 – 17
3. maila	18 – 26
3.+ maila	27 – 34

### 3.3. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak eta, ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 13. galdera erraza izan zaie ikasleen %82,96ri, eskatutako informazioa murgiltzeko eta interpretatzeko gai baitira. 5. galdera kokatzeko ataza bat da eta aurrekoa baino zailxeagoa izan da (%63,01k asmatu du). 19.a ere kokatzeko ataza bat da, eta ikasleen %24,99k baino ez du ongi egin.

Galdera bakoitzak zailtasun-maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta galderaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira galdera bat gaitasun maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio-indizea erakusten du:

<b>Hizkuntza gaitasuna euskaraz</b>	
<b>Galderaren zenbakia</b>	<b>Diskriminazio-indizea</b>
1	0,356
2	0,314
3	0,375
4	0,411
5	0,346
6	0,335
7	0,177
8	0,326
9	0,419
10	0,429
11	0,226
12	0,426
13	0,262
14	0,381
15	0,209
16	0,199
17	0,259
18	0,122
19	0,149
20	0,254
21	0,319
22	0,326
23	0,182
24	0,283
25	0,144
26*	0,567

\* 26. galdera ekoizpen idatzikoa (idazlana) da

### 3.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (euskarazko hizkuntza gaitasuna)

<b>Zenbatek egin duen</b>	<b>1908</b>
<b>Zenbat neskak</b>	<b>954</b>
<b>Zenbat mutilek</b>	<b>954</b>
<b>Puntuaziorik txikiena</b>	<b>5</b>
<b>Puntuaziorik handiena</b>	<b>33</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>20,27</b>
<b>Desbiderapen tipikoa</b>	<b>5,57</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>21,16</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>19,38</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>13,05</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>17,40</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>56,18</b>
<b>3.+ maila (%)</b>	<b>13,36</b>


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 5 izan da eta handiena 33 puntu.
- Desbiderapen tipikoa 5,57 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %27,48), eta horrek adierazten du, batez besteko puntuazioaren aldean, norbanakoen puntuazioetan aldakortasun txikia dagoela.

### Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna euskaraz	
Ikasmaila bakoitzeko ikasleen portzentajea	
1. maila	13,05
2. maila	17,40
3. maila	56,18
3.+ maila	13,36



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (%69,54) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Zazpi ikasletik batek (%13,36) erdietsi du bikaintasun maila.
- Zortzi ikasletik batek (%13,05) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Sei ikasletik bat baino gehixeago (%17,40) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat soilik burutzen duenlarik.



### Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 1,78 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdenaren eta herenaren artean baitago (DT = 5,57).

Hizkuntza gaitasuna euskaraz	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	21,16
Mutilak	19,38



### 3.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zertxobait kamutsagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,203 da; horra zergatik den zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, hau da, aldagarritasun handiagoa dago batez bestekotik beheiko puntuazioen artean.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,457 da; horra zergatik den zorrotasuna zertxobait arinago (platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

## 4. Matematika gaitasuna

### 4.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak bi estimulu edo egoera izan ditu, “Patinajea” eta “Urbasa-Andia parke naturala” izenekoak. Horietako bakoitzetik 11 eta 9 galdera atera ziren hurrenez hurren; 20 galdera, osotara. Horien artean, 16 galderak puntu 1eko balioa izan dute eta 4ek 2 puntukoa, kasu horretan puntuazio partzialak onartzen zirela (puntuazioa 24 da gehienez ere).

Galderen zailtasuna ez da beti bera izan; batzuk oso errazak gertatu dira (zuzen ikasleen %86,68k erantzundakoak) eta beste batzuk oso zailak (ikasleen %29,47ek baino ez dituztenak zuzen erantzun).

20 galderei zegozkien atazek ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematikako prozesuekin dute lotura. Ondoko taulan azaltzen dira probako galderen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia)*, *emandako gehienezko puntuazioa eta ebaluatutako prozesu matematikoa*. Galderen ordena taulan eta probako koadernotxoan bera da.

Matematika gaitasuna

Galderaren zenbakia	Mota	Gehieneko puntuazioa	Erantzun zuzenen ehunekoak	Ebaluatutako prozesua (*)
1	Irekia	1	%57,57	Aplikatzea eta aztertzea
2	Irekia	2	%57,32	Aplikatzea eta aztertzea
3	Itxia	1	%79,31	Ezagutzea eta erreproduzitzea
4	Itxia	1	%46,80	Ezagutzea eta erreproduzitzea
5	Irekia	1	%60,69	Aplikatzea eta aztertzea
6	Itxia	1	%80,10	Aplikatzea eta aztertzea
7	Itxia	1	%66,91	Aplikatzea eta aztertzea
8	Itxia	1	%62,52	Ezagutzea eta erreproduzitzea
9	Itxia	1	%65,80	Aplikatzea eta aztertzea
10	Irekia	2	%66,77	Aplikatzea eta aztertzea
11	Itxia	1	%86,68	Ezagutzea eta erreproduzitzea
12	Itxia	1	%79,06	Ezagutzea eta erreproduzitzea
13	Itxia	1	%78,26	Ezagutzea eta erreproduzitzea

14	Itxia	1	%69,67	Aplikatzea eta aztertzea
15	Itxia	1	%54,98	Aplikatzea eta aztertzea
16	Irekia	2	%66,61	Aplikatzea eta aztertzea
17	Itxia	1	%53,08	Ezagutzea eta erreproduzitzea
18	Irekia	2	%29,47	Aplikatzea eta aztertzea
19	Irekia	1	%74,28	Ezagutzea eta erreproduzitzea
20	Itxia	1	%38,38	Ezagutzea eta erreproduzitzea

(\*) Galderari argien lotutako prozesua hautatu da eta ez da beste prozesu batzuekiko lotura baztertzeko.

## 4.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3.+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak matematikako gaitasun maila apala du.</p> <p>Oso galdera gutxiri erantzuten dio zuzen. Maila honetako galderarik tipikoena eta estatistikoki adierazgarriena honako hau da: angeluak irekiduraren arabera bereiztea.</p> <p>Kasu hauetan, probako galderaren formatua eta ikasliburuetan izaten diren ariketena oso antzekoak dira.</p>	<p>Maila honetako ikaslea gai da galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila dira. Adibidez, grafiko bat egitea laguntza eta adibideekin, oso oinarritzko denbora-kalkuluak egitea, oso taula xumeak interpretatzea eta haietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea.</p> <p>Lan horietan guztietan ez dago kalkulu matematikorik (edo, kalkuluak egiten badira, lehen zikloari dagokion konplexutasun mailakoak dira). Maila horretan bi urrats egin beharreko problemarik ere ez dago, ezta Lehen Hezkuntzako 4. ikasmilako ikasle batek ustez egiten jakin behar dituen arrazoitze matematikoak ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gaitasuna du menderatzen ikasmila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealeko egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko.</p> <p>Egoera batez jabetzen dira eta hura ulertzen dute, egoera horrek, zenbakizko informazio askorik izan ez arren, maila honetako ikasle batek ustez jakin behar duen arrazoitze logiko-matematikoa eskatzen duenean. Era berean, bi urrats egin eta egoera matematiko bat planteatu beharreko problemak ebazten dituzte.</p> <p>Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; badakite denbora-kalkulu errealak egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin.</p>	<p>3. maila eta maila hau ez dira desberdinak, baina maila honetan ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek aurreko mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte.</p> <p>Badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk, hala nola, arrazoitze matematikoa aldeztu aurretiko baldintzen arabera egokitzen dutela.</p>

### Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Matematika gaitasuna Puntuazio-tarteak
1. maila	0 – 7
2. maila	8 – 12
3. maila	13 – 21
3.+ maila	22 – 24

### 4.3. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraiantzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak eta, ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Esate baterako, 11. galdera oso erraza izan da, ikasleen %86,68k erantzun du zuzen. 19. galdera aurrekoa baino zailxeagoa izan da, %74,28k erantzun baitu zuzen. 5. galderak arrazoitze matematikoko ataza bat planteatzen du eta zail samarra izan da %60,69ek erantzun baitu zuzen eta, berriz, arrazoitze prozesua eskatzen zuen 18. galdera ikaslerik gaituenez besterik ez dute ongi egin (%29,47ek erantzun du zuzen).

Galdera bakoitzak zailtasun-maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta galderaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira galdera bat gaitasun maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio-indizea erakusten du:

<b>Matematika gaitasuna</b>	
<b>Galderaren zenbakia</b>	<b>Diskriminazio-indizea</b>
1	0,552
2	0,566
3	0,414
4	0,287
5	0,461
6	0,401
7	0,424
8	0,426
9	0,383
10	0,501
11	0,298
12	0,292
13	0,325
14	0,467
15	0,377
16	0,570
17	0,322
18	0,462
19	0,322
20	0,175

#### 4.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (matematika gaitasuna)

Zenbatek egin duen	6816
Zenbat neskak	3286
Zenbat mutilek	3530
Puntuaziorik txikiena	1
Puntuaziorik handiena	24
Batez besteko puntuazioa	15,11
Desbiderapen tipikoa	5,28
Nesken batez bestekoa	14,59
Mutilen batez bestekoa	15,59
1. maila (%)	10,46
2. maila (%)	19,85
3. maila (%)	59,07
3.+ maila (%)	10,62

Alderdi azpimarragarriak:


- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 1 izan da eta handiena 24 puntu.
- Desbiderapen tipikoa 5,28 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %34,94), eta horrek adierazten du, batez besteko puntuazioaren aldean, norbanakoen puntuazioetan aldakortasun txikia dagoela.



### Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen ehunekoa jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Matematika gaitasuna	
Ikasmaila bakoitzeko ikasleen portzentajea	
1. maila	10,46
2. maila	19,85
3. maila	59,07
3.+ maila	10,62




Alderdi azpimarragarriak:

- Hamar ikasletik zazpik (%69,69) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion prozesu matematikoak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (%10,62) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek (%10,46) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (%19,85) tarteko egoeran dago, eskola mailari dagozkion atazen parte bat egiten du.

### Banaketa, generoaren arabera


Mutilek neskek baino 1,00 puntu gehiago erdietsi dituzte batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 5,28).

Matematika gaitasuna	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	14,59
Mutilak	15,59



## 4.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zertxobait kamutsagoa.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,418 da; horra zergatik den zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, hau da, aldagarritasun handiagoa dago batez bestekotik beheitiko puntuazioen artean.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,643 da; horra zergatik den zorrotasuna zertxobait arinago (platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

## 5. Hizkuntza gaitasuna ingelesez

### 5.1. Probaren deskribapena: galdera kopurua, puntuazioa, tipologia eta erantzun zuzenen ehunekoak

Probak hiru trebetasunetako galderak izan ditu: ahozkoaren ulermena (*Listening*), 9 galderarekin; irakurriaren ulermena (*Reading*), 17 galderarekin; eta idazmena (*Writing*), jarraibide batzuen arabera idatzi beharreko testu labur batekin.

Hizkuntza trebetasun hauek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barruan; hona taula honetan puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Puntuazio osoan duen pisua
<i>Listening</i>	9	%24
<i>Reading</i>	17	%45
<i>Writing</i>	12	%33
<b>GUZTIRA</b>	<b>38</b>	<b>%100</b>

27 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesuekin daude loturik. Ondoko taulan azaltzen dira probako galderen ezaugarri zenbait: *tipologia (irekia edo itxia), emandako gehieneko puntuazioa eta ebaluaturiko prozesua*. Galderen ordena taulan eta probako koadernotxoan bera da.

#### Hizkuntza gaitasuna ingelesez

Galderaren zenbakia	Mota	Gehieneko puntuazioa	Erantzun zuzenen ehunekoak	Ebaluatutako prozesua
1	Itxia	1	%49,21	Informazioa aurkitu eta lortzea
2	Itxia	1	%82,54	Informazioa aurkitu eta lortzea
3	Itxia	1	%81,21	Informazioa aurkitu eta lortzea
4	Itxia	1	%71,95	Informazioa aurkitu eta lortzea
5	Itxia	1	%64,61	Informazioa aurkitu eta lortzea
6	Itxia	1	%30,05	Informazioa aurkitu eta lortzea
7	Itxia	1	%32,88	Informazioa aurkitu eta lortzea

8	Itxia	1	%52,01	Ulermen globala eta interpretazioa
9	Itxia	1	%48,18	Ulermen globala eta interpretazioa
10	Itxia	1	%54,20	Ulermen globala eta interpretazioa
11	Itxia	1	%69,87	Informazioa aurkitu eta lortzea
12	Itxia	1	%86,55	Informazioa aurkitu eta lortzea
13	Itxia	1	%67,70	Hausnarketa eta balorazioa
14	Itxia	1	%47,35	Hausnarketa eta balorazioa
15	Itxia	1	%65,06	Informazioa aurkitu eta lortzea
16	Itxia	1	%25,34	Ulermen globala eta interpretazioa
17	Itxia	1	%39,91	Ulermen globala eta interpretazioa
18	Itxia	1	%64,77	Informazioa aurkitu eta lortzea
19	Irekia	1	%59,90	Informazioa aurkitu eta lortzea
20	Itxia	1	%90,70	Informazioa aurkitu eta lortzea
21	Itxia	1	%67,67	Informazioa aurkitu eta lortzea
22	Itxia	1	%54,97	Hausnarketa eta balorazioa
23	Itxia	1	%55,78	Informazioa aurkitu eta lortzea
24	Itxia	1	%58,28	Ulermen globala eta interpretazioa
25	Itxia	1	%40,24	Hausnarketa eta balorazioa
26	Irekia	1	%36,74	Informazioa aurkitu eta lortzea
27	Irekia	12	%59,12	<i>Aurkezpena eta ortografia, testuaren koherentzia, zuzentasun gramatikala eta aberastasun lexikoa</i>

## 5.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3.+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak gai da literala, agerikoa eta aurkigarria den informazioa ulertzeko.</p> <p>Hala ere, interpretatze-maila jakina duten galderei erantzuteko zailtasunak ditu. Ez ditu ulertzen zikloan landutako hitz oso oinarrizkoak.</p> <p>Soilik pertsonaia baten edo fotograma baten deskribapen oso labur eta oinarrizkoa idazteko gai da, eta gramatikako hutsegite asko eginda.</p> <p>Gainera, zailtasun handiak ditu audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak egoki erantzuten ditu 1. mailako galderak, hau da, informazio literala ulertzea eskatzen dutenak.</p> <p>Testuaren ulermen-maila handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebazten ditu.</p> <p>Maila honetako lexikoa 1. mailakoa baino zabalagoa da. Hori bada ere, testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan zailtasunak ditu. Ez da inferentzia konplexuagoak egiteko gai.</p> <p>Idaztean, pertsonaia bat edo fotograma bat deskribatzeko zailtasunak ditu.</p> <p>Gai da audio mezu simple batzuk ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera, testua globalki ulertzen du eta gai da hitzetatik haragoko interpretazioa egiteko.</p> <p>Horretaz gainera, testu eten batean edukiaren banaketa zein den ulertzen du eta badaki berariazko informazio-mota bat non bilatu.</p> <p>Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen du eta horrek aukera ematen dio egoeren eta ekintzen ulermen-ingurua handitzeko.</p> <p>Gai da pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko, testuaren ulermena eragozten ez duen akatsen bat egiten badu ere.</p> <p>Gai da ikasmaila honi dagozkion audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikaslea 3. mailari dagozkion atazak zuzen egiteko gai da eta, horretaz gainera, eskatzen duten interpretazio mailagatik, hiztegiagatik edo testuaren egitura sintaktikoagatik konplexuagoak diren atazak ebazten ditu.</p> <p>Entzundako audioari buruzko galderak zuzen erantzuten ditu eta gai da 4. ikasmailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko.</p> <p>Laburbilduz, ebaluatutako hiru trebetasunetan gai dira.</p>

### Mailen zenbakizko zehaztapena

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, hurrengo taulan adierazi den bezala:

	Hizkuntza gaitasuna ingelesez Puntuazio-tarteak
1. maila	0 – 11
2. maila	12 – 16
3. maila	17 – 31
3.+ maila	32 – 38

### 5.3. Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun maila jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta beraientzat zailtzat jotzen direnetan huts egin ohi dute. Hortaz, azken horiek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak eta, ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Esate baterako, 20. galdera erraza izan da, %90,70ek zuzen erantzun baitu, 10.a zailagoa izan da (%54,20ek erantzun du zuzen) eta 16. galdera ikaslerik gaituenek besterik ez dute ongi egin (%25,34k erantzun du zuzen).

Galdera bakoitzak zailtasun-maila bat du, galdera hori zuzen erantzuten duten ikasleen ehunekoaren arabera eta, aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio-indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio-indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Zailtasun-maila, diskriminazio-indizea eta galderaren izaera irekia/itxia garrantzitsuak dira galdera bat gaitasun maila bati lotzeko orduan.

Ondoko taulak probako galderen diskriminazio-indizea erakusten du:

<b>Hizkuntza gaitasuna ingelesez</b>		
<b>Trebetasuna</b>	<b>Galderaren zenbakia</b>	<b>Diskriminazio-indizea</b>
<b>Listening</b>	1	<b>0,444</b>
	2	<b>0,423</b>
	3	<b>0,461</b>
	4	<b>0,367</b>
	5	<b>0,503</b>
	6	<b>0,382</b>
	7	<b>0,228</b>
	8	<b>0,346</b>
	9	<b>0,444</b>
<b>Reading 1</b>	10	<b>0,322</b>
	11	<b>0,477</b>
	12	<b>0,366</b>
	13	<b>0,478</b>
	14	<b>0,470</b>
	15	<b>0,433</b>
	16	<b>0,283</b>
	17	<b>0,344</b>
<b>Reading 2</b>	18	<b>0,517</b>
	19	<b>0,544</b>
	20	<b>0,349</b>
	21	<b>0,505</b>
	22	<b>0,105</b>
	23	<b>0,507</b>
	24	<b>0,558</b>
	25	<b>0,094</b>
	26	<b>0,552</b>
<b>Writing</b>	27	<b>0,706</b>



## 5.4. Emaitza orokorrak

Estatistikoen taula (ingelesezko hizkuntza gaitasuna)

Zenbatak egin duen	6818
Zenbat neskak	3289
Zenbat mutilek	3529
Puntuaziorik txikiena	2
Puntuaziorik handiena	38
Batez besteko puntuazioa	22,31
Desbiderapen tipikoa	7,83
Nesken batez bestekoa	23,20
Mutilen batez bestekoa	21,47
1. maila (%)	9,67
2. maila (%)	17,13
3. maila (%)	59,03
3.+ maila (%)	14,17


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 38 puntu.
- Desbiderapen tipikoa 7,83 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %35,10), eta horrek adierazten du, batez besteko puntuazioaren aldean, norbanakoen puntuazioetan neurrizko aldakortasuna dagoela.

### Banaketa mailaz maila

Oso garrantzitsua da gaitasun maila bakoitzean dagoen ikasleen portzentajea jakitea, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

Hizkuntza gaitasuna ingelesez	
Ikasmaila bakoitzeko ikasleen portzentajea	
1. maila	9,67
2. maila	17,13
3. maila	59,03
3.+ maila	14,17




Alderdi azpimarragarriak:

- Lau ikasletik ia hiruk (%73,20) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion hizkuntza prozesuak gauzatzeko. Zazpi ikasletik batek (%14,17) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek (%9,67) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Sei ikasletik bat baino zertxobait gehiago (%17,13) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat soilik burutzen duelarik.

### Banaketa, generoaren arabera


Neskek mutilek baino 1,73 puntu gehiago erdietsi dute batez beste. Alde hori arintzat har daiteke, desbiderapen tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (DT = 7,83).

Hizkuntza gaitasuna ingelesez	
Batez besteko puntuazioa	
Neskak	23,20
Mutilak	21,47



## 5.5. Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazioen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

Banaketa normalarekin alderatuta, ezker aldetik puntuazioen banaketa zertxobait asimetrikoa izan da, eta ez horren zorrotza.

- Fisherren asimetria koefizientea -0,078 da; horra zergatik den zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, hau da, aldagarritasun handixeagoa dago batez bestekotik beheitiko puntuazioen artean.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,920 da; horra zergatik den zorrotasuna arinago (platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

## 6. Aldagai sozioekonomiko eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko testuinguruko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

### 6.1. ISEKa nola lortu eta haren erabilgarritasuna

Galdera-sortaren xede nagusia indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) egiteko informazioa biltzea da. Indize honek kontuan hartzen ditu PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako aldagai berak.

Indizea prestatzeko aldagaiak lau dira:

1. Gurasoen ikasketa-maila (gurasoetako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan), behetik gorako 5 kategoriatan sailkatuta dagoelarik.
2. Gurasoek egiten duten lana (gurasoetako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan, betiere haietako batek lan egin eta soldata bat irazbazten badu). Behetik gorako 5 kategoriatan sailkatuta dago (0 balioa ematen da gurasoetako batek ere ez badu lan egin eta soldata bat irabazten).
3. Zenbait kontsumo ondasun etxean ba ote dituzten. Bost hauek hartu dira kontuan: *Aldizkari espezializatuak (informatikakoak, naturakoak, literaturakoak, etab.); nork bere gela izatea; lanean laguntzen dizuten entziklopediak edo kontsulta liburuak (paperezkoak nahiz digitalak); telefono mugikorra Interneteko sarbidearekin (Smartphone) eta Tableta. 0 eta 5 arteko balioak eman daitezke, etxean dauden kontsumoko ondasunen arabera.*
4. Etxean dituzten irakurtzeko liburuen kopurua, behetik gorako 5 kategoriatan sailkatuz.

Pisu bera eman zaie aurreko lau aldagaiei, halako moldez non haien balioak zenbatuta lortzen baita ikasle bakoitzari dagokion ISEKaren banakako balioa (banakako ISEKaren zuzeneko puntuazioak). Ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa Normalaren arabera, hartara, 0 izanen delarik Nafarroaren batez bestekoa (banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuak). Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa (ikastetxeko ISEKa).

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honen 6.3 atalean ematen dira, ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasun bakoitzaren arabera banatuta, eta ikastetxeko Errendimendua-ISEKa erregresio-zuzenen grafikoak.

- Ikastetxeko errendimenduaren eta ISEKaren arteko korrelazio koefizienteek badute halako korrelazio positibo bat (zenbat eta 1etik hurbilago egon koefizientearen balioa orduan eta indartsuagoa).

Gaitasuna	Korrelazio-koefizientea
HG gaztelaniaz	0,597
HG euskaraz	0,027
Matematika	0,515
HG ingelesez	0,606

- Errendimendua-ikastetxeko ISEKa izeneko erregresio-zuzenek malda positiboa dute; horrek esan nahi du ikastetxeko ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ikastetxeko ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin: tauletan datu hori gradiente modura ageri da.

Gaitasuna	Erregresio-zuzenaren malda (Gradiente, puntu/ISEK unitatea)
HG gaztelaniaz	49,57
HG euskaraz	3,20
Matematika	46,08
HG ingelesez	66,77

- Ikastetxeko ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua:  $100 * R^2$ , non  $R^2$  erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den; biderkadura hori gaitasunaren arabera aldatzen da.

Gaitasuna	Bariantza azalduaren ( $100 * R^2$ ) portzentajea (%)
HG gaztelaniaz	%35,64
HG euskaraz	%0,02
Matematika	%26,52
HG ingelesez	%36,66

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen dela, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa errendimenduaren eta ISEKaren arteko erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:


- o Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko handiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez besteko txikiagoa lortu dutenak.
- o Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Erregresioko grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza orokorrak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan konparatzeko aukera ematen du. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, beren irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke erregresio-grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela (ekitate da ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasuna). Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

## 6.2. ISEKaren banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa:




Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik txikiena 2 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbiderapen tipikoa 3,55 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren %27,79), eta horrek adierazten du, batez besteko puntuazioaren aldean, norbanakoen puntuazioetan aldakortasun txikia dagoela.
- Banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa, banaketa normalarekin alderatuta, ezker aldetik zertxobait asimetrikoa gertatu da, eta zertxobait kamutsagoa.
  - Fisherren asimetria koefizientea -0,327 da; horra zergatik den zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, hau da, aldagarritasun handixeagoa dago batez bestekotik beheetiko puntuazio zuzenen artean.



- Fisherren kurtosi koefizientea  $-0,309$  da; horra zergatik den zorrotasuna zertxobait arinago (platikurtikoa), hau da, puntuazio zuzenen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.


Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuen banaketa. Kontuan hartu honen forma aurrekoarena bera dela, aipatu behar bada ere balioak  $-3,04$  eta  $2,03$  artekoak dituela, batez bestekoa  $0$  duela eta desbiderapen tipikoa, berriz,  $1$ .



Ebaluazioan sartuta dauden 213 zentroetako bakoitzari “ikastetxeko ISEKa” eman zaio; ISEK horren balioa lortzeko, ebaluatutako ikasleen banakako ISEK estandarizatuen batez bestekoa egin da. Ikastetxeek  $-2,810$  eta  $+1,062$  arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Grafikoan ikastetxeen ISEK-en balioak irudikatu dira. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira (ISEK-Q1, ISEK-Q2, ISEK-Q3 eta ISEK-Q4), ikastetxeen ISEK-en maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera (inkesta egindako ikasleen laurdena hartzen du talde bakoitzak).

Sailkapen honetan, 80 ikastetxek dituzte lehen kuartileko ISEK balioak (beheko maila); 53 ikastetxek, bigarren kuartileko ISEK balioak (maila behekoa-ertaina); 46 ikastetxek, hirugarren kuartilekoak (maila ertaina-goikoa), eta 34 ikastetxek, goiko kuartilekoak (goiko maila).




### 6.3. Erregresio-zuzenak

Ikastetxeen tamaina ezberdina denez (1tik 166 ikaslera bitarte), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriak ateratzen laguntzen du.

Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeen ISEKak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua gaitasun bakoitzean. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio.


#### Erregresio grafikoa: Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz – Ikastetxearen ISEKa



Gaztelaniazko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 274,83 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna gaztelaniaz
<b>R<sup>2</sup> determinazio-koefizientea</b>	0,3564
<b>Bariantza azalduaren (100·R<sup>2</sup>) portzentajea (%)</b>	%35,64
<b>Gradientea</b>	49,57 puntu/ISEK unitatea
<b>R korrelazio-koefizientea</b>	0,579


**Erregresio grafikoa: Hizkuntza gaitasuna euskaraz – ikastetxeko ISEKa**



Euskarazko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 276,34 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna euskaraz
<b>R<sup>2</sup> determinazio-koefizientea</b>	0,0002
<b>Bariantza azalduaren (100·R<sup>2</sup>) portzentajea (%)</b>	%0,02
<b>Gradientea</b>	3,20 puntu/ISEK unitatea
<b>R korrelazio-koefizientea</b>	0,0271


### Erregresio grafikoa: Matematika gaitasuna – Ikastetxeko ISEKa



Matematika gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 318,90 puntukoa da.

	Matematika gaitasuna
<b>R<sup>2</sup> determinazio-koefizientea</b>	0,2652
<b>Bariantza azalduaren (100·R<sup>2</sup>) portzentajea (%)</b>	%26,52
<b>Gradientea</b>	46,08 puntu/ISEK unitatea
<b>R korrelazio-koefizientea</b>	0,515

### Erregresio grafikoa: Ingelesezko hizkuntza gaitasuna - ikastetxeko ISEKa



Ingelesezko hizkuntza gaitasunean, ikastetxeen batez besteko puntuazioen arteko alderik handiena 309,48 puntukoa da.

	Hizkuntza gaitasuna ingelesez
<b>R<sup>2</sup> determinazio-koefizientea</b>	0,3666
<b>Bariantza azalduaren (100·R<sup>2</sup>) portzentajea (%)</b>	%36,66
<b>Gradientea</b>	66,77 puntu/ISEK unitatea
<b>R korrelazio-koefizientea</b>	0,606

*Iruñean - 2018ko uztaila*  
*Ebaluazio eta Kalitate Atala*  
*Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren, Berdintasunaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua*  
*Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua*